


Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 18. zbkia. 1995eko azaroa. 100 pzta.



Inaki epaitua

Euskara

**AEK eguna
argazkitan**

Elkarriketa

**Manuel Bastías,
herpesaren
sendatzailea**

Erreportaia

**Alkoholari
aurre egin
behar zaionean**

OIKIARRAK, IRABAZI, TXANPAN

(Brigida Ibarbiak utzitako argazkia)




Zumaiak bakarrik ez, Oikiak ere badu bere historia, eta 1930ean gertatutakoa ez zen makala izan. Zarauzko Banderan aurkeztu, eta Oikiako traineruak bandera etxera ekarri ez zuen ba! Hauek dira egun haundi hartako protagonistak, parentesi artean baserriaren izena azaltzen delarik:

Ezkerretik eskubira, GOIAN, Gregorio Arrona (Beheko Erremitterikoa), Inaxio Larrañaga "Txatua" (Txortengua), Rikardo (Olalde), Esteban Arrona (Beheko Erremitterikoa), eta Martin "Txiki" Larrañaga (Lasalde). ERDIAN Antonio eta Manuel Ibarbia (Pikaondo Behekoak biak), Aizpurua "Rubio" (patroia, getariarra), Sebastian Alkorta (Errotaberri), Julian Larrañaga (Lasalde), eta Patxi Alkorta (Errotaberri).

BEHEAN Juan Jose Salegi (Epiola Azpikoa), Jose Manuel Arrona (Beheko Erremitterikoa) eta Jose Salegi (Epiola Azpikoa). Gora oikiarrak!

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ZUMAIako INSTITUTUA

Aita Mari Auzategia, z/g

20750 - ZUMAIA

86 08-09/86 08 10

Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



BALEIKE HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea ZUMAIACO GAZTE BATZORDEA

Ian taldea

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Itziar Manzisidor
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta
Juan Luis Romatet

kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea, Miriam
Romatet, Aitor Leiza, Izar
Martin eta konpainia, Imanol
Manterola, Esti Esteibar, Jon
Manzisidor, Dani Carballo, Luis
Mari Aizpurua, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.
(Zubillaga - Oñati)

tirada: 800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Gutunak.....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: Patxanga itxi da.Iñaki Etxanizen epaiketa.....	6
Elkarrizketa: Manuel Bastías.....	10
Erreportaia: Alkoholari aurre eginez	12
Inkesta fotografikoa: Estazio berria.....	15
Komikia: Dani Carballo.....	16
Sexualitatea: Muxu beltza.....	18
Olarru-zopa:.....	19
Izerdi patsetan: Plaieroak martxan. Korrikalariak.....	20
Gaztedia:.....	22
AEK eguna: Argazkitan.....	23
Kultur Agenda:.....	26
Musika: Txakun.....	28
Denborapasak:.....	30
Merkatu txikia:.....	31
Kontraportada:.....	32

PATXANGA, EZ ADIORIK

Ateak itxi dizkizute; kanpokaldean hesiak jarri. Atzo bertan ere txikiteoan ari ginela hutsune galanta somatu genuen Goiko eta Zumea artean. Gu bezela ere, betiko txikiteroak noraezean, galduta ibiliko direla pentsatzen degu. Erortzeko arriskuan omen zaude eta AEK Eguna zer zen ikusteko aukerarik ere ez zizuten eman. Ostiraleroko MUS txapelketan parte hartzera gindoazen albiste tristea eman zigutenean. Zure jangela ilun horretan ikasi baikenuen musean Hil ta Pakia kuadrilako askok; partxisean ere ibiltzen ginen, telebista ikusten, baita berriketan ere; azken finean, ordu pilo ederra pasa genuen zure magalean eta geure bigarren etxea, geure "gaztetxea" izan zinela esan daiteke. Txiste bat, maitekiro: nola esaten da swahilieraz "Taberna"? Patx ... Agur bero bat Bito eta konpainia osoari; ez dakigu Patxanga berririk izango ote dan edo ez, baina dana dala, eskerrik asko zuekin pasa ditugun une goxoengatik.

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epategia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

ALKATEAREN ESKUBIDE "DEMOKRATIKOAK"

Frankismoaren ondorengo lehen udal korporazioa eratu zenetik hona, legealdi guztietan Gobernu Batzordea zinegotzi guztiei irekia egon da; denek har zezaketen parte bilkuran eta bozkatzeko ahalmena alkateak hautatutako bost partaideei soilik bazegokienez ere, hitza zinegotzi guztiei errekonozitzen zitzairen.

Legealdi berri honetan, ordea, Gobernu Batzordearen irekitasuna eta gardentasuna kolokan dago Rikardo Peña alkateak Gobernu Batzordeko kide ez diren zinegotzien partehartzea eragoztearabaki baitu. Berak ez du hala aitortu, baina azken finean neurri honen bidez Zumaiako bigarren indarra den alderdi politikoari (Herri Batasunari) hitza ere kendu nahi izan dio.

Erabaki honek udalaren jarduera demokratikoan suposatzen duen atzerapausoa kontuan hartuz Herri Batasunak mozioa aurkeztu zuen, udal plenoan eztabaida zedin. Honako hau onartzea proposatzen zuen mozio horrek:


"Gobernu Batzordeak orain arte izan duen irekitasuna mantenduko du. Beraz, zinegotzi guztiek parte hartu ahal izango dute Gobernu Batzordearen bilkuretan, eta guztiei errekonozituko zaie hitza, beren iritzia azaldu ahal izango dituztelarik"

Alkateak mozioa ez eztabaidatzea erabaki zuen; bere hitzetan ez omen dagokio udal plenoari berak hartutako erabakiari buruzko iritzia ematea.

Alkateak, bere ezintasunean, Gobernu Batzordean hitz egiteko eskubidea ere ukatu egin digu. Zorionak. Hurrengorako zer prestatu ote du "demokraten aitzindariak"?

Zumaiako Herri Batasuna

GUTUNAK



Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu nahi genituzke. Idatzi beldurrik gabe, NA zenbakia ahaztu gabe, eta utzi ezazu Forondan edo eta Joxe Manuelen kabinan.

ITZURUN IRRATIA

Zumaiarrei benetako gertaera bat kontatzera noa, euskaraz musika entzun eta informatu nahi dugun entzuleoi emisora bat egiten ari zaigun kalteraren berri izan dezaten.

Aita Mari auzategiko bajo batean lantxo batzuk egiten nenbilela, Egin Irratia entzuten ari nintzen, FM-ko 103.0an sintonizatua. Goizeko 9ak inguruan nire irrati-aparatua gaztelerazko emisora bateko berriak ematen hasi zen. Diale mugitu nuen berriz ere lehen entzuten ari nintzen emisora sintonizatu nahian eta harrituta geratu nintzen, ahoa bete hortz, FM banda guztia emisora bakar batek hartzen zuela ikusita.

(...)

Dial numerikoa duen aparatu batez baliatuz, ikusi nuen banda guztia hartua zuen emisora hori

Itzurun Irratia zela, 107.2 frekuentzian emititzen duena, orduan eta ondorengo beste momentu batzuetan Onda Cero emisorarekin bat eginda bazegoen ere.

Pertsonalki ez dut ezer bertako emisora honen edo bere arduradunen aurka, baina iruditzen zait ezin dela emititzen ari diren potentzia horrekin emititu, horrek beste emisora batzuk entzun nahi ditugun zumaiarrontzat kalte larriak dakartzalako.

Arazo hau lehenbailehen konpontzea espero dut, antenaren irteera-potentzia gutxituz, era honetan FM guztia har ez dezan. Hori egingo ez balute, komenigarria lizateke Udalak behar diren neurriak hartzea, horretarako Herrialdeko Telekomunikazio Ordezkaritzara jotzea beharrezkoa balitz hala eginez.

Jose Maria Etxabe

OHARRA: Gutun hau 1995-X-31ko Diario Vascotik hartua da, laburtua eta erredakzioan itzulia.

Herritarro gogorarazi nahi dizuegu aldizkari honetako txoko hau egokia dela zuen iritzi, kexa, proposamen guztiak biltzeko. Zuen gutunen zai gaude!




HARAGITEGIRO, 15 - 1. TEL: 86 21 16

Kukutz SERIGRAFIA



Narrondo 8, 2. esk

★KAMISETAK
★KAPELAK
★TXISKEROAK
★TXANDALAK
★PAPELEZKO
★POLTSAK



Amertze

Erribera Kalea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAI (Gipuzkoa)



ZIGOR ETXABE

famili xelebrea

Harraskan:

-Redio! Gaur ere nei tokatzen zatek ontziak garbitzea. Badek ontzia hemen! Ezta, dozena bat lagun baginare. Ta, ofertako ontzigarbitzeko jaboï honekin, berriz, hau dek gerra; honek ere jo dik ondua.

Mahaian (Lau lagun partxisean):

-Irekiko al den barrera hori. Jun daneko orduerdian hemen natxion hik noiz irekiko zai.

-Bueno, ez hai hainbeste kejau, eh! Beste hiru fitxak sartuta dazkak eta. Dana libre o ze!

-Martxa hontan etzekixat ze in biojoun. Nik ondiño, hiru etxetik atatzeko, berriz. (Bizkaitarra, larri jokuan).

Harraskatik:

-Hi! Partxisean earki ai haiz baina, biharko bazkaitako babak beratzen jarrita al dazkak? Biharko bazkaria hiri tokatzen zaik, ezta?

-Osti! Baina, babarik erosi dou, ala?

(Amaren lanaz ohartzeko eta famili xelebre bat osatzeko dagoen mundu txiki hori: ikasle pisu bat)

Hurrengoan:

Azterketa bezpera bateko zituaziñue eta arroza erre ondoren, bazkaririk gabe gelditu ginen hartako panorama.


Zorionak
Abraham!



Aitzol Oliden

Bejondeizula Abraham etzaude motela askok etzuen hori usteko horrela zerorrek irabazi munduko txapela euskaldunak zer geran jakin dezatela

Nabarmen da sasoia latza daukazuna oraindikan gaztea zer etorkizuna Euskadiren izena jaso diguzuna etzaigu ez aztuko zuk egin dezuna



**BELARDENDA
SIWA**



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



Amaiako plaza, 7
Tel.- Fax: 862385
20750 ZUMAIA

Atun-latak Sahara alderako



Tentatuta egon diren arren ez omen dute hamaiketarik egin jasotako atunarekin.

Argazkian ikusten denez, atun-lata dexente bildu dira Sahara Herrira bidali ahal izateko. Azken egunetan inguratu da batez ere jendea Gurutze Gorri aldera eta bertako mutilek txintxo-txintxo jaso dituzte jendeak

emandakoak. Lata gehiago eraman nahi bazenitu, galdetu badaezpada Gurutze Gorrian, beharbada oraindik hartuko dizkizute-eta. Tindouf aldean dauden sahararrek ederki estimatuko dute zumaiarrok emandako laguntza

Erantzun ona alde zaharreko inkestari

Aurreko zenbakian esan genizuen bezela, azterketa honen bidez alde zaharren arazo batzuei buruzko jendearen iritzia jaso nahi da, honen arabera proiektu zehatz bat lantzen hasteko. Honetarako 400 galdetegi banatu ziren eta jendeak ondo erantzun du, behar bezela betetako 250 galdetegi jaso baitituzte IKEI etxeok.

Horretaz gain, bilera batzuk ere egin dira alde zaharreko dendari eta bizilagun batzuekin, gaia gehiago sakondu eta informazio hobea lortu



asmoz. Ea azterketa honek emaitza onak ematen dituen eta gure alde zaharra behingoz indarberritzen den. Hala bedi! ■

Udalak langile berri bat hartuko du

Udalak plantillan hutsik dagoen administrari laguntzaile postua bete nahi du, lehiaketa-oposaketaren bidez. Plaza hau betetzeko 3.hizkuntz eskakizuna gainditu beharko da, hau da, EGA maila. Euskararen ezagupenaz gain, beste bi ariketa ere gainditu beharko dira: gai jakin batzuei buruzko galdeketa bat eta ordenagailuarekin egindako ariketa praktikoa. Merezimenduak edo meritua ere kontuan hartuko dira eta guztira puntu gehien lortzen dituen, praktiketako funtzionari izendatuko da urtebeteko eperako.



26 zumaiar juradotzarako zerrendan

Estatu guztian egin den zozketaren bidez, 95 eta 96 urtetan hala eskatzen zaienean jurado-lanak beteko dituzten pertsonen aukeraketa egin da. Zerrenda udaletxe azpiko arkupeetan dago, baina lan hau egitea egokitu zaienei banan-banan jakinarazi zaie. Orain 15 eguneko epea dute erreklamazioak aurkeztu nahi badituzte. "Dura lex, sed lex" (Lege gogorra, baina lege, hala ere).

JZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

Endaketa Zumaia

• SUKALDERAKO ALTZARIAK
• ELEKTROGAILUAK
• BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8
Telefonoa: 861694

Ze urrun dagon Bilbo!



Bilboraino trenetaz joatea masokisten kontua bihurtu da.

Estazio berria duela gutxi inauguratu dute, bai, komunikazio-sarea asko hobetuko omen da honela. Baina bi albistek zalantzan jartzen dute baieztapen hau.

Batetik, "Bidexpres"-ak kendu dituzte, oso jende gutxi erabiltzen zuela argudiatuz eta orain ez dago Bilbora zuzenean doan trenik. Bestetik PESA etxeak betetzen zuen Donostiatik Bilborako zerbitzua kendu egin dute, herrietatik pasatzen zena behintzat. Bidaia oso luzea omen zen eta gainera, hemen ere jende oso gutxi ibiltzen omen zen.

Diputazioko Garraio Sailean esan digutenez "reordenazio" edo berrantolaketa bat izan da, eta honen ordeaz orain beste linea edo bide batzuk bultzatu dira, Azkoititik Elgoibarra bitartekoa adibidez.

Gauzak honela, begira zer egin behar degun Zumaia eta inguruko

herriarrok Bilbora joan nahi badegu. Trenetaz goazela erabakiz gero Aurrena Ermuaraino joan behar da (Debaraino autobusez transbordoia) eta han Bilbora eramango gaituen beste tren baten zai egon; 3 edo 4 ordutan iristen bagera, ondo.

Autobusez bi aukera ditugu; Donostiatik Bilbora zuzenean doana har dezakegu, baina bidaia garesti irteten da, eta aurrena Donostiaraino joan behar da, trenetaz ala autobusez. Bigarren aukera Azkoititik irtenda joatea da, handik Elgoibarra joan eta han autopistan sartuta Bilbora garamatzaten 3 autobus baitaude egunero. Baina, noski, Azkoitiraino ere iritsi egin behar da.

Egia da Donostiarako zerbitzua asko hobetu dela, bai trenetaz, baita autobusez ere, baina beste alderakoa zer? Kamerun ez dakit, baina ze urrun dagon Bilbo! ■

Herriko bertsolariak pattal samar



Herriko bertsolariak ez dira fin aritu orain egiten ari den Gipuzkoako Txapelketan. **Lizarreta** Usurbilen 5.postuan geratu zen eta 540'5 puntu lortu zituen. **Olalderi** Arrasaten kantatzea egokitu zitzaion eta postu bera lortu zuen, 426 punturekin. Azkenik, **Jon Maia** Zumaian bertan aritu zen, eta 542 punturekin 4.postuan sailkatu zen; behar baino gutxiago puntuatu zuten irudipena izan genuen askok, batez ere gartzelako gaiarekin lan oso txukuna egin zuelako. Hirurek ere hurrengo faserako sailkatzea ia ezinezkoa izango dute

"Axun" liburuaren aurkezpena



Inpernupe Kultur Elkartearen eskutik, **Abelin Linazisorok** bere lehen eleberria aurkeztu zuen, Oxford aretoan bildu ziren 50 zumaierren aurrean. SUSA argitaletxeko arduradun bat ere han izan zen eta saioaren amaieran liburuak sinatzen aritu zen Abelin.

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea

20750 ZUMAIA

Telefona: 860201

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

Kanposantua lorategi bihurtzen denean




Kanposantura urtean behin bakarrik joaten den jende asko dago.

Urtero bezela, Santu Guztien Egunean herri guztietako kanposantu edo hilerriak lorez bete ziren eta gurean, nola ez, berdin gertatu zen. Goiz-goizetik hasi zen jendea gora

igotzen, eta eguerdi alderako kanpoalde guztia kotxez bete zen; lorez gainezka zegoen kanposantua. Badirudi urtean egun batean behintzat hildakoak hurbilago izaten ditugula. ■

Agur, Patxanga, agur



Akabo Patxangako azeituna goxoak!

AEK egunaren bezperan itxi zuten, alkatearen aginduz, taberna jator hau. Lehenago balkoi zatiak erori izan dira kale aldera eta oraingoan

etxe guztia erortzeko arriskuan omen dago. Horregatik, badaezpada hesiz inguratu da etxe guztiaren buelta, ezer larrik gerta ez dadin. ■

Enterradore berria, nitxo berriak

Laster hasiko da lanean Jokin Otxotorena Vitoria, gure enterradore berria. 30 urteko Donostiako gazte hau izan da lehiaketan puntu gehien ateratuena eta bera izango da aurrerantzean Fermin ordezkatzeko duena.



Lehenbiziko zeregina usteldutako loreak kentzea izango du beharbada, eta kanposantuko lanaz gain, Beheko Plazako estankea ere txukun mantendu beharko du.


Bestalde nitxo berriak egin dira kanposantuaren goiko aldean. Zumaiar gehiagorentzat tokia egin da, baina ez degu uste inork ere oporrak "hotel" horretan pasatzeko gogo haundirik izango duenik.



Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKIZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082
78 Posta kutxa Fax: 148081
20740 IRAETA - ZESTOA



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

Beste zumaiar bat epaitua


Joan den urriaren 19an, goizeko 9 t'erditan Iñaki Etxaniz zumaiarra epaitu zuten. Bere delitu bakarra: intsumiso izatea.

Dena oso bizkorra izan zen, hiru egun lehenago eman zioten zitazioa, eta epaiketak bost minutu besterik ez zuen iraun. Hain denbora laburrean epaileak jakin ahal izan zuen Iñaki errudun den ala ez. Fiskalak bere papera antzetzuz bi urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela-zigorra eskatu zuen, eta ofiziozko abokatuak aldiz absoluzioa eskatu zuen.

Portzierto, nahiz eta abokatuarekin epaiketa baino ordu

erdi lehenago geratu, epaiketa hasiera zihuan momentu berean iritsi zen. Astirik ez zuten izan defentsa prestatzeko, bere "ofizio" eskasa erakutsiz.

Horrelakoetan gertatzen den bezela epaiketa tramite burokratiko administratibo hutsa baino ez zen izan. Zeren guztiok baitakigu epaia, epaiketa hasi aurretik erabakia duela.



Bestalde eskertzekoa da jendearen erantzuna. Zumaiako Institutuan greba egin zuten eta ikasle asko inguratu ziren Donostiako Entzutegira Iñakiri beren elkartasuna adieraztera.

Bestelako jendea ere inguratu zenez autobusa bete egin zen. Eskertzekoa litzateke aurrerantzean ere jendeak horrela erantzuten jarraitzea, gure herritar bat epaitzen duten bakoitzean.

Istiluak kanpoan

Azkenik, aipatu behar da Iñakirekin batera preso politiko bat epaitu zutela intsumiso izateagatik. Kanpoan jende asko bildu zen, eta istilu larriak izan ziren presoaren Entzutegian sartzerari zihuan momentuan. Ertzaintzak kargatu egin zuen eta tentsio-une gogorrak izan ziren. ■



Oraingoan ere jende ugari inguratu zen epaitegira.

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA

Manuel Bastías, herpesaren mirarigilea

Ez da Osakidetzako azken fitxajea. Ezta sendabide azkarrak antzuki saltzen dizkigun mingainatze bat. *Duela ia 30 urtetik Zumaian bizi den jubilatu honek, sendagileak zoratzten dituen azaleko gaixotasun bat sendatzen du dohain: herpesa. Horretarako, erramua, ur bedeinkatua, eta otoitzak besterik ez omen ditu erabiltzen, eta Koala bideo-denda azpian duen kontsultatik pasa diren guztiak sendatu omen ditu gainera. Ez da makala!*



Herpesak harrapatzen bazaitu, badakizu norengana jo behar dezun.

NOIZ ETA NOLA HASI ZINEN HERPES-A SENDATZEN?

Duela 25-30 bat urte hasi nintzen. Nire amak irakatsi zidan. Nik ere orain nire alabari irakatsi diot, berak sendatzen jarrai dezan.

ORDUAN, FAMILIATIK DATORKIZUN ZERBAIT DA...

Bai. Ez dakit noiztik datorren. Nire amari bere amak irakatsi zion, eta nire amak 96 urte ditu, beraz pentsa noiztik etor daitekeen.

ETA ZURE ALABAZ GAIN, EZIN DIOZU BESTE INORRI IRAKATSI?

Ez. Gehienez pertsona batek edo biek ikasi dezakete nigandik. Hortik aurrerakoek ez lukete herpesa sendatzeko gaitasunik izango. Normalean seme-alaba bakarrari erakusten zaio.

ETA NOLA SENDATZEN DEZU?

Ur bedeinkatua, esango ez ditudan osagai batzuk botatzen ditut. Ondoren bederatzi erramu-hostro hartzen ditut, gurutzaturik jartzen dira, horiek uretan bustitzen joaten naiz eta nik dakidan otoitz bat isilpean esaten dudun bitartean gurutzeak egiten ditut erramuarekin gaitza dagoen tokian. Otoitza oso laburra da, beraz, sendaketa bakoitzean hogeit edo hogeita hamar aldiz errezatzen det.

Gaixoak bederatzi egun jarraian etorri behar izaten du sendatzera. Gaitza oso haundia dutenean, hiru egunetako deskantsua egiten degu eta berriro egiten degu sendaketa. Etorri izan dira ia zazpi urtez gaitzarekin egon direnak eta horiek hiru edo lau saiotan sendatu ditut. Baina beti sendatzen dira.

JENDE ASKO SENDATU AL DEZU HORRELA?

Puff!! Gutxi gorabehera mila pertsona. Baina lehen oso jende gutxi etortzen zen oraingoarekin konparatuta. Gaur egun garai hartan baino %80 gehiago etortzen dira.

"Gehienez batek edo biek ikas dezakete sendatzen, gainontzekoek ezingo lukete sendatu"

TRUKOA OTOITZEAN BALDIN BADAGO, ZER DA, MIRARI BAT?

Ez dakit, baina trukoa bai, otoitzean dago. Hori da batez ere sekretua. Jendeak ez du sinisten, baina hala da.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4
Telf.-Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

NONDIK ETORTZEN ZAIZU JENDEA?

Herrialde guztitik. Eibar, Elgoibar, Donostia, Azkoiti, Irun... Bilbotik ere etortzen zaizkit. Palentzia eta Valladolidetik ere bai. OPUSeko monja bat ere etorri da hona sendatzera Iruñeatik.

"Sendaketa bakoitzean hogeit edo hogeita hamar aldiz errezatzen det"

SENDAGILEEK EZ AL DUTE BA SENDATZEN?

Sendagileek kanpotik ikusten dena sendatzen dute. Gero, barnealdean gaitza geratzen da, eta horrek izugarrizko mina egiten du. Gainera sendagileek bidalitako sendagaiak izugarri garestiak dira. Nik beti sendatzen det. Ez da ezer geratzen. Hasierako hilabetetan bai, min pixka bat geratzen da. Baina segituan pasatzen da. Badago sendagile bat Zestoan, herpesarekin joaten zaizkion gaixoak nigana bidaltzen dituen.

KURANDERO BAT ZERA?

Herpesaren kurandero bat bai.

NONDIK DATOR HERPESA? ZER DA?

Herpesa gaizki sendatutako elgorri edo saranpioi, eskarlatina, rubeola eta abarretik dator. Azaleko gaixotasun asko daude, ondo sendatzen ez baditugu denborarekin herpesa sortzen digutenak.

Gainera, herpes mota ezberdinak daude: ezpainetan ateratzen den herpes tipiko hori, oso erraz sendatzen dena. Korneako herpesa ere badago; kornea barrura sartzen bada, itsu geratzeko arriskua ere badago, baina gaur egun dena garaiz hartzen da. Gorputzean azaldu ohi dena ere badago, eta hori da guztietan minberena. Beste mota bat herpes genitala ere bada.

ZENBAT KOBRATZEN DEZU SENDATZEAGATIK?

Nik ez det ezer kobratzen. Normalean jendeak eskertu egiten dit eta opariren bat ematen didate, baina nik ez det kobratzen.

JENDE ASKOK SENDATZEN AL DU HERPESA ZURE ERARA?

Bazen bat Zarautzen. Baina "El Brujo" deitzen hasi zitzaizkion, eta sendatzeari utzi zion. Baina nik dakidala, hemen inguruan ez du beste

inork sendatzen. Nigana etortzen dira, eta hori ez dedala publizitaterik egiten! Bestela gainez egingo nuen lanaz!


OPUSeko monja bat ere etorri da hona sendatzera Iruñeatik

ETA JENDEAK ZUGANA JOTZEN DUENEAN, SENDATUKO DITUZUNAREN ESPERANTZAN ETORTZEN AL DIRA?

Gehienak ez. Ondoren, bi edo hiru egun tratamenduarekin egon direnean eta mina jeisten hasi zaienean sinisten dute. Badira batzuk, beste baten bitartez etortzen direnak, eta esperantzarekin etortzen dira, aditu dutelako benetan sendatzen dudala.

ZER ESANGO ZENIOKE HERPESA DUEN EDONORI?

Nigana etortzeko. Saio batetan ez bada, bi edo hirutan sendatuko dedala. Ziur. ■



la mila lagun sendatu omen ditu Manuelek. Bejondeiola!

**JOSEBA OSA
- ITZULPENAK -**

**EUSKARA-GAZTELERA-
KATALANA-INGELES-
FRANTSESA**

Tel / fax: 148065

ekin
ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK
DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)

S
DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
Telefonoz: 862051

**SUKALDEKO
ALTZARIAK**

20750 ZUMAILA
(Gipuzkoa)

Alkohola gaixotasun bihurtzen denean

Ia 10 urte dira alkoholarekin arazoak dituen edonori lagundu ari garen hirun talde osatu zirela. AA (Alkoholiko Anonimoak), Al-Anon (Senideak) eta Al-Ateen (senide gazteak) dira talde hauen izenak eta beraiekin berriketan ari garen ondoren, zer lan egiten duten azaldu nahi dizuegu.

Alkoholiko Anonimoen taldea nahikoa ezaguna da, baina inork gutxi daki nola beste bi talde ere badauden. **AL-ANON** taldeak alkoholikoen senitarteko eta lagunek osatutako elkarteak dira; beren esperientziak elkarrekin bizi dituzte, elkartzen dituen arazoari irtenbide bat eman nahirik: alkoholiko batekin bizitzeari, alegia.

**Jendeak
"alkoholiko"
hitza entzunda
atzera egiten du**

Taldeko partaide izateko baldintza bakarra gertuko senitarte edo lagun min batek alkoholarekin arazoak izatea da. Ez dago kuotarik ordaindu beharrik, Al-Anonek bere partaideen borondatezko kontribuzioak bakarrik jasotzen ditu.



**TXOKOA
B
E
R
N
A**

*Artadi
Auzoa*

Tlf: 86 21 89



Arazoa gaingirtzeko liburu batzuk ere badituzte talde hauetako partaideek.

Beraiek esan digutenez taldeak ez du loturarik inongo sekta edo erlijioarekin. Programa bat jarraitzen du, alkoholikoari ahal den neurrian lagundu eta norbera heldutasun espiritual batera iritsi ahal izateko.

Gazteen taldea

AL-ATEEN taldea, alkoholikoen seme-alabek osatzen dute, eta Al-Anonekoa den aitabitxi edo amabitxi bat izaten dute, aholkatu eta edozein zereginetan laguntzeko. Gazteek arazoarekin asko sufritzen dute eta giro zail horrek ziurtasun eta heldutasun falta bat sortzen omen die. Talde honetan horri buruz lagunekin eta kalean esaten ausartzen ez diren guztia kontatzeko aukera dute.

Hiru taldeek terapia bera jarraitzen dute. Literatura bat eta 12 pauso edo tradizio dituzte, pertsonalki lantzeko. Horietako bik honela diote:

1.- "Alkoholari bakarrik aurre egiteko gai ez ginela onartzen dugu, eta gure bizimodua jasanezina bihurtu zela".

11.- "Otoitzaren eta hausnarketaren bidez, Jainkoarekiko gure kontaktu kontzientea hobetzen saiatzen gara, Berari buruz dugun entendimenduaren arabera, eta eta Bere Borondatea ikusteko gaitasuna eta hau betetzeko indarrak ematea besterik ez diogu eskatzen".

**Senitartekoek nola
jokatu, nola esan,
noiz hitz egin behar
den ikasi behar dute**

*Jesuskoa
Jaletxea*



Aplaka 86 17 39 • Cikila - Zumaiña



KABI

TABERNA - ZUMAIÑA

Tfnoa: 143379

Denek ere aipatzen dutenez arazorik gogorrena gaixotasun hori onartzea izaten da. *"Nahi dezunean edaten dezula pentsatzen dezu, baina ez da horrela. Eta alkoholiko bat ez da lurrean mozkorra dagoen hori bakarrik."* dio AAko batek.

Bizimodua aldatu

Behin gaixotasuna onartutakoan, alkoholik gabe bizitzen ikasi behar omen da. Askotan ohiturak eta lagunak erabat aldatu behar izaten dira, eta talde hauetan aurkitzen dute aurrera egiteko behar duten babesa.

Familiak ere garrantzi izugarria du. Senitartekoek nola jokatu, zer esan, noiz hitz egin, ... ikasi behar dute. Gaixoa errespetatzen ikasi behar da, beti eztabaidan aritu gabe. Arduradunetako baten hitzetan *"Gizonezko gutxi hurbiltzen dira Al-Anonera: lotsa ez dutelako gainditzen, autosufizienteak direla uste dutelako, e.a."*

Seme-alabek alkoholaren arazo honekin asko sufritzen dute

Al-Anonen 10-12 lagun elkartzten dira, eta Gipuzkoan guztian 27 talde daude. AA, berriz, ia herri guztietan dago, 42 talde baitaude guztira. Hiru taldeak hilabete t'erditik behin elkartzten dira bilera batean,

Alkoholiko Anonimoak (AA)

Alkoholikoei beraiek osatzen duten taldea da. Asteartean 8etan biltzen dira eta larunbatetan 7etan, hiltegi edo matederia izandako etxean.

AL-ANON

Alkoholikoen senitartekoek edo lagun minek osatzen dute talde hau. Eskola Txikian biltzen dira, Parrokiaren aretotan, larunbatero Setatik 7ak bitartean

AL-ATEEN

Alkoholikoen seme-alabek osatzen dute talde hau. Gidari edo aholkulari bat izaten dute eta larunbatetan biltzen dira 4 t'erdietatik aurrera, hiltegian.

iritziak trukatzeko. Arrate Irratian irratsaioak ere egiten dituzte, eta informazioa ematen ere saiatzen dira mahainguruak antolatuz, hitzaldiak emanaz, e.a.

Jendearen beldurra

Sendagileekin eta Gizarte Zerbitzuakoekin harreman zuzena dute, baina garbi dago jendeari "alkoholiko" hitzak atzera egiten diola. *"Jendea, hala ere, bide guztiak urratu ondoren iristen da guregana, azken baliabideetat hartzen gaituzte"*.

Terapiak 12 pauso edo tradizio ditu, pertsonalki lantzeko

Batzuk bileretara joaten hasi eta berehala uzten dute taldea, arrazoi ezberdinengatik: ez dira gustora sentitzen, hitz egiteak lotsa ematen die, e.a. Baina horrelako arazo larri bati aurre egin behar zaionean, bide guztiak aztertzea komeni da, eta hau beste aukera bat da.



Hiru taldeetatik bi hiltegian biltzen dira.



Surf

Torre Luzea, 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUZ

Erribera, 2g
Tel. 85 23 69
20750 ZUMAIA



leize
TABERNA

Juan Belmonte, 6
Tel. 860415 ZUMAIA

Alkoholiko anonimoak (AA): "Jendea jadanik oso gaizki dagoenean inguratzen da hona"

Ia bi orduz aritu ginen hiru taldetako partaideekin hizketan.

Batzuek besteak baino berritsuagoak ziren, baina bukaerarako ia denek hitz egin zuten. Hauek AAKoek emandako erantzun interesgarri batzuk dira.

Noiz eta nola konturatu zinen alkoholiko bihurtu zinela?

Ez dakit muga hori noiz igaro nuen. Pertsona bat ez da horretaz konturatzen. Goizez edan beharra nuela konturatu nintzen, izugarritzko daldarrak baintuen bestela.

Nola eman zenuen alkohola uzteko lehen pausoa?

Bilera batera eraman ninduten, engainatuta, ez bainekien AAra nentorrenik. Etxean giroa jasanezina bihurtu zen; presionatu egin ninduten, familia izorratzen ari nintzen-eta. Bilera horretara joan nintzen eta denborarekin alkohola uztea lortu nuen. Tratamendu mediko bat ere jarraitu nuen eta hortik aurrera lagunen babesarekin egin det aurrera.

**Emakumeei
gehiago
kostatzen zaie
alkoholiko
direla onartzea**



Anonimotasuna mantentzea ezinbestekoa dela uste dute denek ere.

Alkoholismoa gaixotasuna dela aipatu dezue. Erabat senda al daiteke?

Ez da erabat sendatzen, geldiarazi daiteke. Orain edaten hasiko banintz lehengo bidera joango nintzateke berehala. Frenorik ez duen kotxea garaje batean sartuta ez degu arazoa konpontzen, hurrena hartzen degunean frenoak berdin-berdin faltako ditu-eta. Ahulaldiak izan ohi ditugu, baina bata besteari lagunduaz konpontzen degu arazoa.

Emakumeen alkoholismoa ezberdina al da?

Gaixotasuna bera da, baina emakumeek gehienetan etxean edaten dute, eta gehiago kostatzen zaie alkoholiko direla onartzea. Emakume hori askotan bakarrik sentitzen da; babes-laguntza-maitasun berezi hori

falta zaio, bere gizona ez delako konturatzen bere andrea gaixo dagoela.

Gazte jendeari gehiago kostako zaio talde hauetara inguratzea, ezta?

Gaur egun lehen baino gehiago etortzen dira. Ni 33 urtekin sartu nintzen eta denak ni baino zaharragoak ziren. 22-23 urteko jendea ere badago orain. jendeak kontzientzia gehiago du-eta.

Anonimotasuna zergatik?

Oso garrantzitsua da anonimotasuna. Jendeak hemen hitz egiten dena ez dela kanpora irtengo ez baleki, ez litzateke inor hona etorriko. Normalean jendea oso oso gaizki dagoenean inguratzen da, beste aukerarik ikusten ez duenean. ■

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA



**Aintzane
Azpeitia:**

Oso ondo iruditzen zait, horrela hiri handiekin komunikatuagoak gaudelako. Ordutegiak oso ondo daude, maiztasun handia dago eta. Bilbora joateko berriz trasbordua fastidio bat dira.



**Marcos
González:**

Nik hori ez det ezagutzen hemen egiten baitet lana. Egia esan estazio berria ikusi ere ez det egin.



**Ander
Urbieto:**

Nahiko polita geratu da lehengo aldia. Ordutegi aldetik ere, aldaketak onera joan dira, bai, bai.



**Mikel
Etxabe:**

Lehen baino hobeto dago, lehen kondizio txarretan zegoen. Neretzat ordutegiak ondo daude, ze beti Donostiara joaten naizenez Bilboko ordutegiari kasorik ere ez diot egiten.

Zer iruditzen zaizu estazio berria?



**Josu Larrañaga
Carlos Grela
Iñaki Artetxe
Xabier Iriondo**

Oso ondo. Ni gutxi ibiltzen naiz,... ni asko ze dentistana joaten naiz. Bilbora ez gera joaten ze txerrikeri bat da!



**Maite
Aristi:**

Nik uste det oso ondo dagoela, behin ere baino hobeto, ze trena sarritan dago. Bilboko ordutegiari buruz ezin dizuet ezer esan ze beti Zarautzera edo Donostiara joaten naiz.



**Luis Mari
Aizpurua:**

Ni behin ere ez nitzan ibiltzen orain arte, baina orain kotxia baztertzen det Donostiara joateko. Orduerditik orduerdia daude eta nahiko toki dago eserita joateko.



**Begoña
Moreno:**

Ondo dago baina ez dago erabat bukatuta. Atzo bertan umeein eta joan ginen eta komunak jartzeko daudela konturatu ginen. Detailtxo hori!

GANBARA





TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57




JUARISTI JATETXEA

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua
Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853



724
BROADWAY, INC.

1995






ONE ... TWO ... ONE, TWO, THREE ! ... Go !



!... TAKA TAKA KAPLAKA TAKLAPAKA KLAP !...

♠

1995



Sexua libre eta dohain Zumaia Aldizkari erotikoa

*Zer da
Muxubeltza?
Batzen esanetan,
ipurdian muxu
lizun bat da. Baina
zumaiaarrantzat,
duela urte batzuk
gure herrian
argitaratu zuten
zortzi orrialdetako
aldizkaritxo
erotikoa da.
Zoritxarrez,
aldizkari honen 0.
zenbakia besterik
ez zen kaleratu,
baina hala ere
oraindik ere
gogoan daukagu.*

Zumaiaiko aldizkari erotikoa bezela aurkezten zuen bere burua, portadan 18 urtetik gorakoentzat zela iragarritz. Herriko hainbat tabernatan aurkitu genuen larunbateko poteoa normal-normal egiten hasi orduko, eta flipatuta geratu ginen.


Zumaiaiko moral kutre-hipokrita hautsi zigun hainbat komiki eta istorio erotikorekin. Frigido eta frigida batzuk garela demostratu zigun, tabernaz taberna, parre algara eta beroaldien artean denok begiztatzten genuen bitartean. Ziur larunbat gau hartan, muxubeltz bat baino gehiago izan zela Itzurun inguruan.

Komiki lizunak, istorio berdeak eta Amaiaiko plazan giro-tutako ipui erotiko batek osatzen zuten, Hizki-zopa baten bitartez zakila eta alua erdaraz esateko hamabi era bilatzera gonbidatzen gintuzten bitartean.

Zer esan daiteke Muxubeltzaz? Batez ere, ideiak zabaltzera eginiko

gonbidapen soil bat baino gehiago dela. Oraindik ere horrelako asko behar direla Zumaian? Noski! Bada ordua sexua gauza normal bat bezela hartzen hasteko, herriko gazteok gutxienez, Muxubeltz gehiagoren beharrik izan ez dadin.

Nork kaleratu ote zuen? Auskalo! Baina hemendik, gure zorionik bero, gozo eta lizunenak beraientzat. Eta noski, muxu beltz-beltz bat ipurdi erdi-erdian. ■



ZUMAI A



AUTO -ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A





*Motxian
hi!*

Nor: Xalba Beristain
Zer: Taxista

Kontu-kontari

-Zenbat urte lan honetan?
Bi urte.
-Lehen baino lan gutxiago al dago?
Pixka bat bai. Autobusak ere gero eta gehio daude-ta.
-Ez al zerate hemen aspertzen?
Beti etortzen da lagunen bat bixitan. Periodikua ere letzen degu.
-Zer moduzko siestak botatzen dituzu?
Onak, onak. Ordubetekoak erraz.
-Zein da kotxerik gustokoena?
Mercedesa, baina ez dago txotxik.
-Belozidadea maite al dezu?
Bai, noizean behin ibiltzen gera sakatzen.
-Kotxeak nola edukitzen dituzue horrelako brilloarekin?
Trukoa egunero edo bi egunetik behin garbitzea da. Hau oso inportantea da taxista batentzat.
-Emakumeak gizonak baino txofer hobeak al dira?
Tartean onak badaude, baina normalean okerragoak.
-Urrutiena nora joan zera taxiarekin?
Coruñaraino, pieza baten bila
-Asko hitz egiten al dezu bezeroarekin?
Berak nahi duen neurrian. Edozer gauzari buruz hitz egiten degu.
-Zer musika aitzen dezu kotxean?
97.2 edo bestela Euskadi Gaztea
-Ligatzen al dezue taxista gazteek?
Ba, noizean behin etortzen dira neska batzuk.
-Zein ez zenuke eramango zure taxian?
Mozkor jendea zu ondo zaudenean, pelma xamar jartzen dira-ta.

HILEN KAFETEGIA

Bi zumaia gauez mozkorturik zebiltzan kalean. Berandu zen eta dana itxita zegoen. Baina haiek ez zuten etxera juateko asmorik. Halako batean, argi bat somatu zuten atari batean. Zerbait bazegoen goian.

- Goazen horraxa! -esan zuen batek.
- Igotzen asmatzen badegu! -erantzun zion besteak.

Eskailerak igo zituzten. Goian jendea zegoen.

- Aurrera! -agindu zieten.
- Hau dek suertea! -esan zioten mozkorrek alkarri.


Aurrera sartu eta jende gehio zegoen. Gaubela bat zen. Defuntua han zegoen, ezker-eskubi kandela bana zituela.

- Hor daukazue -erakutsi zien norbaitek.
- Zer zerate zuek horrenak? -galdetu zuen mozkor batek gizalegez.

- Ez, ez gera ezer -erantzun zioten.

Orduan beste mozkorrak berehala esan zuen:

- Gu ere ez gera ezer, baina kafe bat hartzera etorri gera.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
· 24 orduetan
· Zeure etxean
· Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

**BIZKOR
FOTOKOPIAK**



Basadi 14, behea - Tlf: 145120

Jende ugari Behobiarako prestatzen

Egun hauetan saltakalari ugari ikus daiteke, gehienak ere Behobiatik Donostirako 20 km-ko lasterketa prestatzen.

Iaz izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere Polikiroldegitik **autobusa** antolatu da. Lasterketa 1 letan hasiko denez, autobusa garaiz irtengo da, goizeko 8'30etan. Donostiatik, berriz, eguerdiko 1'45tan irtenda etorriko da bueltan. 1.000 peztan kostako da bidaia, eta izena Polikiroldegian bertan eman beharko da hilaren 9a baino lehen. Mugitu, autobusa bete baino lehen!



Bestalde, lehengo hilaren 15ean **maratoia** korritu zen Donostian; irteeran gehiago baziren ere 6 zumaia (lehena bertan bizi dena) izan ziren helmugara iritsi zirenak, 42'195 km bete ondoren. Hauei orain Behobia-Donostia bidea egitea errezagoa egingo zaiela pentsatzen degu. Zorionak denoi!

207.- Javier Barrera..... 2o 58' 55"
209.- Faustino Zubia.....2o 59' 02"
279.- Julian Igual.....3o 07' 38"
496.- Juan I. Alkorta.....3o 25'57"
538.- Josu Egaña.....3o 30'52"
715.- Jaime Osa.....4o 4' 22"

Enbil eta Alberdi, omenduak



Plaka eta oroigarri ugari jaso zituzten Luis Mari eta Gotzonek entrenatzaile, Eskolako partaide, Federazioko kide eta herriko agintarien eskutik.

Lehengo hilaren 28an, omenaldi beroa eskaini zieten Kuban hain lan txukuna egin duten gazte hauei. Hiru partidu antolatu zituzten egun horretarako eta azkenengoan beraiek hartu zuten parte, selekzioan kide izan zuten bikotearen aurka erakustaldi ederra emanaz.

Partiduaren aurretik, ordea, Beti Gazte dantza taldekoek auresku bat dantzatu zieten, eta oroigarri ugari jaso zituzten: Udaleko ordezkarien emandakoak, Zesta Punta Eskolakoak, Federaziokoak, e.a

Egun hau, Zesta Punta eskolako partaide guztien aurkezpena egiteko aprobetxatu zuten. Denak bikote honen mailaren erdian errenditzen badute, ez degu etorkizun makala! ■


goofy
HAUR JANTZIAK
Amalako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA


agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

julio curiel

PELUQUERO

Erribera kalea
ZUMAIA



Hondarretan ostikoka



Leize taldekoek oso indartsu daudela erakutsi dute

Hasi da aurten ere plaierotako denboraldia. Azkenean 14 izan dira izena eman duten taldeak, eta kopuru hau ikusita zazpiko bi taldetan banatzea pentsatu da.

A taldean daude Txilbor, Autos Zumaia, Urberu Erreategia, Mendi-Ondo Elektrizitatea, Leize Taberna, Hil ta Pakia eta Xemetaxio.

B taldekoak dira Ipurbeltz (zestoarrak), Inpernupe, Aginagalde Taberna, Kabi Taberna, Buitraker, Everin (azpeitiarrak) eta Garibaldi.

Dagoeneko 6 partidu jokatu dira, eta emaitzak ikusiz gero nabaritzen da talde berriak oso indartsu datozela: Leize, Everin, Autos Zumaia, Ipurbeltz, e.a.

Denboraldia, ordea, oso luzea da. Aurten, gainera, hondartzako futbol txapelketa honi jarraipen berezia egiten saiatuko gera. ■

Azken emaitzak

Ipurbeltz 6 - Inpernupe 2
Aginagalde 4 - Kabi 2
Leize 4 - Hil ta Pakia 0
Autos Zumaia 5 - Txilbor 3
Buitraker 1 - Everin 3
Urberu 6 - Mendi-Ondo 6

Hurrengo partiduak

Azaroaren 11n (11'00)

Txilbor - Leize

Autos Zumaia - Urberu

Azaroaren 12an (12'00)

Mendi-Ondo - Xemetaxio

Kabi - Garibaldi

Azaroaren 25ean (12'30)

Autos Zumaia - Leize

Ipurbeltz - Buitraker

Azaroaren 26an (11'00)

Mendi-Ondo - Hil ta Pakia

Aginagalde - Garibaldi

(12'30)

Urberu - Xemetaxio

Kabi - Everin

Aitor Manzisidor selekziora

Itxas-Gain taldeko piraguista hau, estatuko Junior mailako selekziora joateko aukeratu dute, eta honek baiezkota eman dio luzatu dioten proposamenari.

"Torron" dagoeneko Pontevedra aldean da, bertan urtebeteko epean entrenamendu gogorak eta ikasketak tartekatu ahal izateko. Zaila izan omen da erabaki hau hartzea, 16 urte bakarrik izanda oso gogorra baita etxekoak eta lagunak hain urrun izatea.



Ea, ordea, lan bikain honek bere fruituak lehenbailehen ematen dituen. Animo Aitor! Bidaliko dizugu aldizkaria hilero-hilero.

Aitor Garmendia garaile

Itsasondoko txirrindularia izan zen Txitxarroitik Zumaia bitarteko lasteketan denborarik onena egin zuena. Bigarren Leanizbarrutia izan zen eta hirugarren postuan Barcina sailkatu zen.

Ez ziren aurten ere punta-puntako txirrindulari asko inguratu, baina giro onean burutu zen denboraldiari amaiera emateko egiten den egun hau.



Basadi Auzategia, 10-A atzean

Telefona: 862228

ZUMAIA

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

20750 ZUMAIA

Neguko martxa, hau da martxa!

Hasi da Gazte Batzordearen neguko martxa. Joan den urriaren 28an autobusa antolatu genuen Oiartzungo "Hitz egin!" kontzerturako, eta AEK Egunean gure txosna ere hor izan zen, giro bero hura irakiten jarriaz.

Bestalde Udalari proposamen zerrenda luze bat aurkeztu diogu: irteerak, mural topaketa, ikastaroak, zaldian ibilaldi bat, e.a.

Begirale ikastaroa martxan dago jadanik, eta orain artean giro ederrean burutzen ari da. Azaro eta abenduari begira, antzerki saio batez gain, Rock hamabostaldi bat ere ari gera prestatzen.



Beharbada abenduko zubian Larraulera joango gera, eta drogei buruzko topaketa bat eta beste hainbat ekintza ari gera prestatzen urtearen amaierarako.

Gutxi iruditzen al zaizu? Lasai egon! Azaroaren 3an Oxford-en egindako bileratik ideia berriak ziur irtengo ziren-eta. Adi egon, beraz, antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko. Eta hurrengo bileran, azaldu eta HITZ EGIN! adierazpen askatasunarengatik! ■



Rock hamabostaldian hitzaldiak, kontzertuak, e.a. antolatu nahi dira.

Mirjana, Gazte Batzordearen haur besoetakoa



Ia urtebete da Gazte Batzordeak, SOS Balkanes erakundearekin bat egirik, Bosniako haur bat apadrinatu zuela. Hilero 2.000 pezta emanez, haur honek urtean zehar izan ditzakeen gastuak estaltzen dira. Kanpaina hau Kroaziako kostaldean dagoen Makarska herrian sortu da. Povratak (itzulera) izeneko errefuxiatu erakundetik hain zuzen ere. Erakunde honen helburu nagusia bere partaideak Sarajevora itzultzeko prestatzea da; eta gehien sufritzen ari direnak haurrak direnez, kanpaina hau bultzatu da.

Duela gutxi jaso genituen "gure" haur besoetakoaren datuak. MIRJANA DJUKIC izena du eta 10 urte ditu une honetan. Jostailu gogokoena Barbie panpina omen du eta kontatu digutenez gozozale amorratua omen da.

Ia 310 haur daude Povratak erakunde honen menpean, baina erdiak apadrinatzea besterik ez da lortu (Gipuzkoan 87). Honi buruzko informazio gehiago nahi nadezu, Gipuzkoako SOS Balkanesen emango dizkizute behar dituzun argibideak, 425090 telefonoan. Ondo segi, Mirjana! ■

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Belardenda
Paki
OSASUN NATURALA

erribera 2
Tlf: 143156

ONCE

**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

AEK eguna, mundiala!

Eskatzen hasita, ezin zen ezer hoberik eskatu. Eguraldi bikaina izan genuen; ez dakigu mojarrei arraultzak eraman zitzaizkien edo Andremaian kandelak jarri ziren, baina haten bat portatu zen. Goiz-goizetik jendea erruz etorri zen eta bazkalondorako gauza batzuk amaitzen hasi ziren: otartekoak, ardoa, ... Seinale ona. Jende ugari aritu zen jo ta ke lanean eta ia dena primeran joan zenez, denok gustora. Dani Carballo ere lanean aritu zen (argazkiak ateratzen) eta hiru orrialde hauetan dezu lan haren emaitza.

Txosnak egun guztian topera ibili ziren

Juan Mari, hori dek gogoakin hitz egitea!

Eguneko protagonista olarrua izan zen.

Jon eta Maialen aurkezle lanetan aritu ziren

KALARI TABERNA JATETXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



**JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK**

Erribera kalea 20

Aizarnazabalgo frõntoian,
pankartak egiten



Kontuz! erori gabe!



Xabi hankaluzea umorean



Ederki geratu zen hurrengo egunean.



Urres, noiz hoa txosnara lan
pixkat egitera?



Artistek ere topatu zuten
lanerako lekua



**BASUSTA
ERRETEGIA**

M^a Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

ZALLA
Taberna - Erreteria
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Galdona
burdindegia

Mendaro mariñela, 1
Juan Belmonte, 15
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861330

20750
ZUMAIA
(Gipuzkoa)

*Beti-Gaztekoak
Ikurrinaren dantzan*



*Frontoia jangela erraldoi
bihurtu zen*




Hori dek sasoia, hori!




*Alproja hauekin
nora goaz?*



*Umeak primeran ibili ziren
Gernika parkean*



*Ama Say, bere azkenetako
kontzertuan*



ERROTA

ERROTA

OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte. 39 - Tfno. 86 23 68

Erribera. 2 - Tfno. 14 30 01

ZUMAIA



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

Diapositiba emanaldiak

Azaroak 10

Jose Mari Llavorik "Zumaiako Natura" gaitzat hartuta, diapositiba muntaia bat eskeiniko digu, Forondan, arratsaldeko 7'30etan.

Azaroak 24

Kepa Gonzalez-en eskutik. "Aztarnak". Kultur Etxean, hau ere arratsaldeko 7'30etan.



Abenduak 1

Gema Arrugaetak "San Martinak. Odolkiak ordainetan" izenburua duen emanaldia eskeiniko du Foronda Kultur Etxean, ordu berean.

San Martin Eguna (11)

Inpernupe Elkartean txerrikiz egindako afari mundiala: solomoa, saiheskiak, ... Txartelak 1.800 peztan Inpernupen bertan.



HI, ADI EGON HADI!

Zumaiako Udaleko Euskera zerbitzuaren bidez HITANO ikastaro bat antolatu nahi da, HIKAKo formak gal ez daitezen. Lehenbizi Zumaian HIKA nola hitz egiten den aztertuko da; horretarako zumaiarrak inguratuko dira ikastarora, nola hitz egiten duten ikusteko. Teoria pixka bat aztertu ondoren, praktika ere landuko da, ikastaro

(Hitano ikastaroa)

praktikoa izango baita batez ere. Gabonak bitartean emango da ikastaro hau, larunbat goizetan, eta oso interesgarria litzateke herriko gazteek parte hartzea, bestela Zumaiako Hikako formak arriskuan egon daitezke eta. Egunak laster baino lehen zehaztuko dira. Hi gazte! Adi egon hadi!

Kontzertuak (Santa Zezili eguna)

Azaroak 19

Egun honetan TXISTU KONTZERTUA, Guillermo Aizpurua "Txori txiki"-ren omenez. Aita Mari zineman izango, da eguerdiko 12'30etan.

Azaroak 26

BANDAREN KONTZERTUA izago da astebete beranduago, hau ere Aita Marin, 12'30etan.

Kultur taldeei dirulaguntzak

Urtero bezela Udalak herriko kultur taldeen jarduerari laguntza emateko asmoz, hauekin harremanetan jartzen hasia da. Txostenak aurkezteko epea zabalik dago dagoeneko eta azaoaren 17an itxiko da. Forondan utzi behar dira txostenak eta argibide gehiago ere bertan emango zaizkiue, hala nahi badezue.

Ikastaroak

Eslulanak atsegin badituzu hementxe dezu aukera. "Encaje de bolillos" ikastaroa emango da, urtea bukatu bitartean, asteazken eta ostiraletan 3retatik 5etara. Ikastaroaren matrikula 1.500 peztakoa da.



AIZPURUA

LIBRERIA

OPARIK

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefona: 861569
20750 ZUMAILA



ERTZ INFORMATIKA

Mendaro Martiñela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKAKo Denda

-ORDENAGAILU P.C

-INPRIMAGAILU

-CD-ROM

-KRISTALEZKO PANTAILAK


-DISKETTEK

Azaroaren 9an
Gaueko 10'15etan


ESA SONRISA (1995)

Zuzendaria: Claude Miller
Aktoreak: Jean Pierre Marielle,
Emmanuelle Seigner

Claude Miller zuzendari frantziarrak, azkenetan dagoen psikiatra zahar baten azken maitasun saioa kontatuko digu. Agureak neskagazte boluptuoso eta eder batengana zuzenduko du bere fijazioa, gaztearekin larrutan egiteko obsesioarekin; eta neskak, berriz, jendaurrean biluzteko gordetzen duen sekretu ezkutua azalaraziko du. Filme bitxia, ausarta. Ambigua eta erotikoa zalantzarik gabe; eta nor erotikoagoa "Lunas de hiel"-eko dantzaria zen Emmanuelle Seigner baino?



**ZINE
FORUM
SAIOAK**



Azaroaren 23
Gaueko 10'15etan

CRIATURAS CELESTIALES (1994)

Zuzendaria: Peter Jackson
Aktoreak: Melanie Lynsky,
Kate Winslet

Elkarren beharra dute eta elkar maite duten bi gaztek, inor sar ez daitekeen fantasiaz betetako mundu propio bat dute. Beren gurasoek, bertan sartu eta hau txikitzeke ahal duten guztia egingo dute. Pelikula hau benetan gertatutako istorio batean oinarritua dago, eta esan behar da Zelanda Berritik etorri den filmerik onena dela. Gainera, aipagarria da nola Veneziako Zinemaldian Zilarrezko Lehoia irabazi duen.



Auto-stopeko ipuinak
Marino Lejarreta
Miguel Indurain
Ipuin bakarrak
Amodio barregarriak
Poemak
Ez gara gure baitakoak
Ballantraeko premua
Mozkor bat sasirik sasi
Joxemiren uzta
Bai mundu berria

IRAKURKETAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza itzazu ahal dezun neurrian

Euskaraz

Pako Aristi
R. Etxezarreta-A. Iribar
Benito Urraburu
Xabier Mendiguren
Milan Kundera
Arthur Rimbaud
Joseba Sarrionaindia
Robert L. Stevenson
Amos Tutuola
Jexuxmari Zalakain
Aldous Huxley

Gaztelera

Cuerpo letal
Cristal del tiempo
En la linea de fuego
Bianca
La mandrágora
Las carabina de Gastibeltza
Orgía
Misterios Gozosos
Vamos a reinos muy en serio del racismo
El etrusco
Luis Martín Santos



Harrison Arnston
José Bergamín
Max Allan Collins
Robert Elegant
Hanns Heinz Ewers
Marc Legasse
Pier Paolo Pasolini
Fernando Savater
Mika Waltari
Pedro Gorrotxategi



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefonoa: 861485
Fax: 143143



Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

TXAKUNekin, dantza eta dantza!

Lehengo AEK egunean musika-talde ugari inguratu ziren gure herrira: E.H. Sukarra, Ama Say, Gozategi, Drindrots, Txanbela eta ... TXAKUN. Iparraldetik etorri ziren larunbatean eta arratsaldean partaidetako bat "bahitu" genuen, Pascal, eta lerro hauetan agertzen dira lapurtu genizkion hitzak.

Zeuen burua aurkez ezazue.

Beno, taldean 7 gira. Atabalaria Dominique da, baxujolea Mathiu, eskuko-soinularia Txitxof, kitarrajole berria Xabi, ahotsean eta kitarran Txomin, eta nik (Pascal) teklatura, perkusioa eta euskal tresnak jotzen ditut. Soinu-teknikaria, Jaxinto, gurekin etortzen da beti ere.

Nola hasi zen taldea?

Hasieran Txomin eta ni hasi ginen, orain dela 8 urte, Bizkarhezurra taldean (ez orain ezagutzen den talde horretan, beste batean baizik). Orain dela 4 urte utzi genuen talde hori

zerbait berria egiteko: folk, ...Gero Patxirekin Txakun taldea osatu genuen.

**Gure musika ezin da
klasifikatu, estilo
asko nahasten
ditugu-eta**

Nondik dator Txakun izena?

Txomin, Patxi eta ni Iparraldeko txalapartari bakarrak ginen eta beraz, izena txalapartaren erritmoari dagokio.

Taldeaz aparte beste lanik egiten al dezute?

Ez, orain behintzat txalapartaren munduan murgildurik gaude, lan asko baitago Iparraldean; eta kreaio batzuk egiten hasi gara Iparraldeko jende ospetsu batekin.

**Nahi ta nahiez
euskaldunontzat
Bidasoa muga
bat da**

**Diskoak ere atera dituzue,
ezta?**

Bai, bi, lehenengoa maketa bezala. Musika aldetik ez zen horren bete Baina Iparraldean eza-gutarazteko disko bat ateratzea beharrezkoa da. Bigarren diskoa IZn egin genuen eta oso pozik geratu ginen.



Jendea ederki mugiarazten zuten, erritmo biziak joaz.

KOSTA



GAS

GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etkezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert



ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

**GURE TXOKOA
TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia



Martxa ederra jarri zuten Txakunekoek AEK Egunaren bezperan.

Desberdintasunik ba al dago Iparraldeko eta Hegoaldeko musikaren artean?

Nik uste dut baietz. Ez musika aldetik bakarrik, kultur osotasun baten aldetik baizik. Nahi ta nahiez euskaldunontzat Bidasoa muga bat da. Guk Frantziara gehiago jotzen dugu Hegoaldekoek Espainiara jotzen duten bezala. Frantziako musikaren eragina nabaria da Iparraldean; funk, rap, reggae, raggamuffin eta beste musika batzuen mestizaia. Hegoaldean nire ustez musika-estilo bat inposatua dago: heavy-a.

Orain behintzat txalapartaren munduan murgildurik gaude

Letretan zer gai jorratzen dituzue?

Edozer. Euskararen arazo batzuk, Iparraldekoak bereziki.

Iparralde eta hegoaldeko poeten letrak ere hartzen ditugu. Mitologiari buruz ere aritzen gara. Asko interesatzen zaigu euskal mitologia.

Ba al duzue helbururik aurrera begira?

Txakunekin jarraitu eta diska berria atera. Ahal diren kontzertu gehienak eman. Ah! eta gaurkoa gustatzen bazaizue itzuliko gara.

Fan talderik ba al duzue?

Keba! Beno Iparraldean badugu halako taldetxo bat, baina gehienak gaztetxoak dira, 13-14 urte ingurukoak; eta gehienetan neskak. Izan ere musika lasaia egiten dugu eta badirudi horrek mutil gazterik ez duela erakartzen.

Zer pentsatzen duzu AEK egunaz?

Nik uste dut garrantzitsua dela. Argi dago muga hori ez zela egongo denok euskera bageneki. Iparralde eta

Hegoaldearen artean zergaitik ez dago mugarik? Hizkuntza bera daukagulako. Gure taldean badaude euskera dakitenak, baita ikasten ari direnak ere, eta batek ez daki txintik ere.

Bigarren diska IZn egin genuen eta oso pozik geratu ginen

Zumaia ezagutzen al duzu?

Ni kostaldekoa izanik estropadak asko maite ditut eta behin baino gehiagotan etorri naiz kontu hori dela eta. Baita Azpeitiko festak zirenean, azken tragutxoa Zumaia tik pasatzerakoan hartzen genuen.

Gauean beraiek hasi dute kontzertua eta jendea gustora aritu da dantzan, gu ere tartean, noski. Ondo etorri zaigu pixka bat mugitzea, hotzari aurre egiteko. Huirrengora arte Txakun, txakun, txakun, txakun, ... ■



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89
Fax. 43 06 37

JE MAIR

LOREDE NDA

LANDAREAK


LOREAK

HAZIAK

ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

Gurutzegrama




Animo, ez da hain zaila eta!

Bukatuko al dezu?


Ezker eskuin: 1. Begi azal. 2.- Garaitu. 3.- Bi ken bat. (Errep.) Gorotza. 4.- Ogi jale. 5.- Berrogeitamaika. Irudioaren sinbolo kimikoa. Azkeneko kontsonantea. 6.- Sasola. 7.- Nauka. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea.

Goitik behera: 1. Musika tresna. 2.- Kutsua. 3.- Eskaini eta ez eman. Dauka. 4.- Lehenengo biak. Nafarroako herria, Itzan. 5.- Lakarra. 6.- Geruza. Musika nota. 7. Lizioaren sinbolo kimikoa. Gabeziak.

Jeroglifikoak



Nor falta da gure artean?



Gauzarik preziatuena.

(1.- Mikeltxo 2.- Bizitza)

Umorea

Mattinek IRUTXULOn (73. zkia)



... azala eta mamia!

AGURRAK

Buitrakertarrak, Jazz Berrin ere, nausi! Jokin, nun dek txilipitua?

Dunba, dunba, dunba, dunba... J.B. Buitraker eta bixeradun luzia, Txortan markak hautsi nahian!

Roman, zer iten huan Perdidon gainian galduta?

K2-n pelukeroa jarri al dute? Scotland free!

Paso kaskorik gabe igotzeaz. Hik ze uste dek, altoagoa izango haizela hor goian ibiltzeagatik?

Korapiluak egiten ikastea ondo zeok, baina kotxean natual ibiltzen ikastea ere bai, eh! Txatarreian bukatu behar dik oandik!

Hi Joxe, holakoak einda, ez dek bela jolastuko. Uaindik porterua baloi bila zebilek. Pulpon partez.

Hi "Txanpi", erosi ezak txalupa bat sapatuero barko batian bukatzen bait dek kantatzen. Aupa Txankete!

Odri, hi haiz hi artzaia!

Zaka, non erosi dituk haize egokitudun botak?

OHARRAK

Azaroaren 11n, goizeko 10etan Inpernupe elkartean (edo Oxford-en), OLDARTZEN lantzen hasteko bigarren Herri Batzarra. Azaldu!

Salmenta puntuak

Jesuskoa

Errota (Erribera)

Errota (Basadi)

Errota (Juan Belmonte)

Ogi Berri (Amaiako plaza)

Ogi Berri (Basadi)

Arkupe okindegia

Aizpurua liburudenda

Olano liburudenda

Loitz liburudenda

Alai janaridenda

Nikol kafetegia

Inpernupe taberna

Zalla erretegia

Foto Gar

Arroa Beheko estankoa



Erribera kalea 2
Tfnoa: 861125
ZUMAIA

ITZURUN
K
KIROLAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA

Lehiaketa

*Jesuskoa
Jatetxea*



Azoka 86 17 39 • Oskia - Zumaia

Hilabete honetan ez da tartarik izango, baina gure galdetegia behar bezela beterik ekartzen digutenen artean, **Jesuskoa Jatetxea** kekeinitako bi pertsonentzako afaria zozketatuko degu. Animatu, guri laguntza ederra emateaz gain, tripa dohain bapo asetzeko aukera ematen dizugu-eta. Galdetegiak, betiko moduan Foronda, ONCEko kabina, Txapartegi edo Foto Mertxen utzi **azaroaren 24a** baino lehen, eta zorte on!

Lehengorik lehiaketan "Hostal Zumaia" botatzen ari ziren. **Brigida Ibarbiak** ederki asmatu zuen eta berari egokitu zitzaion **Txapartegi Gozotegiak** emandako San Markos tarta goxo erraldoia. Ederra omen zegoen!



æki
eguna

Eskerrik asko
ZUMAIA!

Euskal Herri OSOAN
æk AURRERA!

æki

EUSKAL
HERRIKO
ALFABETATZE
EUSKALDUNTZE